

5 GAIA: ANALISI EKONOMIKO-FINANTZARIORAKO TRESNAK

5.1. Sarrera

5.2 Finantza-analisia

5.2.1. Kontzeptua

5.2.3. Kaudimen ratioa (Distantzia ordainketa-etendurara)

5.2.4. Altxortegiaren edo likideziaren ratioa.

5.2.5. Berehalako erabilgarritasunaren ratioa.

5.2.6. Bermearen ratioa (Distantzia porrotera)

5.2.7. Zorpetze ratioa.

5.3. Ekonomia analisia

5.3.1. Kontzeptua

5.3.2. Galdu irabazien kontua: mozkinaren kalkulua

5.3.3. Errentagarritasuna

5.3.3.1. Kontzeptua

5.3.3.2. Motak

5.3.3.2.1. Akziodunaren errentagarritasuna

5.3.3.2.2. Errentagarri ekonomikoa

5.3.3.2.3 Finantza-errentagarritasuna.

5.1 SARRERA

Enpresa baten egoeraren azterketa ekonomiko-finantzarioa honako bi ikuspegietatik azter daiteke:

Analisi Estatikoa: enpresaren Egoera Balantze bakar baten bidez aztertzen da. Beraz, denbora ez da kontuan hartzen, eta une zehatz bateko egoera oinarri bezala hartzen da. *Guk hau ikasiko dugu*

Analisi Dinamikoa: enpresaren egoera hurrenez hurreneko Egoera Balantzeak erabiliz aztertzen da. Beraz, denbora aldagai bezala sartzen du eta ondorioz, enpresa momentu ezberdinetan aztertzen da. Analisi honek hainbat magnitudeek izandako bilakaera zehazteko eta hauek etorkizunean izanen duten jokabideari buruzko aurreikuspenak egiteko aukera emanen digu, eta ondorioz, neurri zuzentzaileak hartzen lagunduko digu.

5.2 FINANTZA-ANALISIA

5.2.1 Kontzeptua

Finantza-analisia enpresak pasibotik eratorritako ordainketak iritsi ahala hauei aurre egiteko altxortegia¹ (dirua, bai kutxan bai bankuan) sortzeko duen gaitasuna, enpresaren ohiko jarduera oztopatu gabe, aztertzean datza.

¹ Altxortegia edo erabilgarria enpresak bai kutxan bai bankuko kontu korronteetan duen dirua da.

Hau da, zorrak ordaindu behar direnerako, aktiboaren inbertsioak erabilgarri dagoen diruan bihurtuz joan beharko dira.

Finantza-analisisia Egoera Balantzearen bidez egiten da, hau da, Egoera Balantzea tresna bezala erabiltzen da, beharrezkoa den informazioa bertatik ateratzen baitu. Aktiboan, elementuen likidezia aztertuko dugu; Pasiboan, galdagarritasuna eta azkenik, Aktibo eta Pasiboaren ondare-masen arteko erlazioak aztertuko ditugu.

5.2.2 Finantza-ratioak

Finantza-analisisia egiteko badira modu ezberdinak: konparaketak, ehunekoak, indize zenbakiak eta ratioak. Guk ratioak besterik ez ditugu ikasiko. **Ratioa**, bi magnitude edo gehiagoren arteko zatidura-erlazioa da.

Finantza-ratioek ondare-masetan bildutako aktiboko eta pasiboko elementu ezberdinen arteko erlazioa adierazten dute (aktiboko elementuak **likideziaren** arabera ordenatuta eta pasibokoak **galdagarritasun** mailaren arabera).

Finantza-ratioa, enpresak zorrak ordaintzeko **adina likidezia** sortzeko gaitasuna duen ala ez aztertzeko erabiltzen den tresna da; eta ondorioz, enpresaren jarduera mugagabea.

Ratioen erabileran bi puntu kontuan hartzekoak dira:

- **Ratio bakoitzerako ez dira enpresa guztietarako aplikagarriak diren balioak.** Enpresa bakoitzak, bere egoera, bilakaera, etab.en arabera, kalkulatzeko diren ratio bakoitzerako balio ezberdinak har ditzake, eta oro har, ez dago ziurtatzerik egoera onaren seinalea den edo, alderantziz, egoera txarraren seinalea den.
- Teorikoki, enpresa bakoitzerako, Egoera Balantzea osatzen duten ondare-masa desberdinen arteko zatiketak eginez, ratio anitz kalkula daitezke. Hala ere, edozein erlazioa ez da baliozkoa izango. **Ratio batean erlazionatzen diren ondare-masek benetako erlazioa izan behar dute**, hau da, konparaketa horrek ematen duen balioak kontzeptu finantzarioa izan behar du, adibidez, kaudimena, likidezia, bermea, zorpetze-maila, etab.

5.2.3 KAUDIMEN RATIOA (EDO KAUDIMEN KORRONTEAREN RATIOA, KORRONTE RATIOA, ORDAINKETA-ETENDURARAKO DISTANTZIA RATIO)

Enpresaren epe laburreko kaudimena aztertzen du, hau da, enpresak epe laburreko zorrei aurre egiteko duen gaitasuna. Beste era batera esanda, enpresak ondasun eta eskubide nahikoak izatea aurre egin beharreko zorrak ordaindu ahal izateko, nahiz eta hauek erabilgarrian ez egon.

Enpresaren aktibo korrontea osatzen duten ondare elementuetatik lortutako likideziatik, enpresaren epe laburreko zorrak ordaintzeko duen gaitasuna neurtzen du. Honela kalkulatzeko da:

$\text{Kaudimen-ratioa} = \frac{\text{Aktibo korrontea}}{\text{Pasibo korrontea}} \text{ edo } \frac{\text{Erabilgarria+Bihurgarria+Izakinak}}{\text{Pasibo korrontea}}$
--

Ratio hau **beti 1 baino handiagoa izan behar da**, lehen esan dugun bezala, enpresak maniobra-fondo positiboa izan behar duelako, aktibo korrontea beti pasibo korrontea baino handiagoa izan behar da. Honela, ekoizpen prozesuaren etendurak ekiditen dira edo kaudimen ezak ordainketa betebeharrak atzeratu.

Ratio honen balioaren interpretazioa:

- *Ratioaren balioa 1,5 eta 2 artean badago*: egoera zuzena (normala) adierazten du, enpresak epe laburrerako hartzekodunei kaudimen nahikoa eskaintzen dielako.
- *Ratioaren balioa 1 eta 1,5 artean badago*: ardura egoera adierazten du, enpresa ordainketa-etendura egoeran sar daitekeelako.
- *Ratioaren balioa 1 baino gutxiago bada*: egoera guztiz arriskutsua da, enpresa ordainketa-etendura teoriko edo teknikoan baitago. Maniobra-fondoa negatiboa denean, enpresa ordainketa-etendura teoriko edo teknikoan dagoela esaten da, nahiz eta denboraldi batean horrela iraun, benetako ordainketa-etenduran sartu gabe.
- *Ratioaren balioa 2 baino handiagoa bada*: arreta egoera adierazten du. Enpresaren aktibo korrontea handiegia da eta ondare-masa hauei errentagarritasun nahikoa ez ateratzearen arriskua dago. Hau da, aktibo korrontea beste era batera erabiliko balitz, baliteke orain aktibo korronteari lortzen diogun errentagarritasuna baino handiagoa lortzea. Kasu hauetan erabilgarria, bihurtgarria edo izakinak gutxitzearen komenigarritasuna aztertzea aholkagarria da.

5.2.4 Altxortegiaren ratioa edo likideziaren ratioa (edo proba azidoa, test azidoa edo Acid test)

Enpresaren epe laburreko likidezia aztertzen du.

Enpresaren bihurtgarria eta erabilgarria osatzen duten ondare elementuetatik lortutako likideziaz, enpresaren epe laburreko zorrak ordaintzeko duen gaitasuna neurtzen du. Honela kalkulatzen da: Honela kalkulatzen da:

	Erabilgarria+Bihurtgarria	Aktibo korrontea - Izakinak
Altxortegiaren ratioa =	$\frac{\text{Erabilgarria+Bihurtgarria}}{\text{Pasibo korrontea}}$	edo $\frac{\text{Aktibo korrontea - Izakinak}}{\text{Pasibo korrontea}}$

Ratio honek aurreko ratioa osatzen du; enpresa batek aktibo korrontea handia izan dezake, baina **gehienbat** izakin anitz izateagatik; erabilgarrien eta bihurtgarrien artean epe laburreko zorrak ordaintzeko diru nahiko ez izatea.

Oroitu, izakinak aktibo korronteko **likidezia gutxien** duen ondare-masa dela eta horregatik ratio honen kalkuluan ez dira kontuan hartzen, bai ordea erabilgarria eta bihurtgarria. Ordaintzeko obligazioak diruz ordaindu behar direnez gero, enpresak bere erabilgarria (**jadanik dirua dena**) eta bihurtgarria (diru bihurtzeko **erraztasun handien** duen ondare-masa) kontrolatu beharko ditu.

Ratio honen balioaren interpretazioa:

- *Ratioaren balioa 0.75 eta 1 artean badago*: egoera zuzena adierazten du, enpresak likidezia arazoak izanen ez dituelako, bere erabilgarriarekin eta bihurtgarriarekin epe laburrerako zorrei aurre egiteko diru nahikoa izanen baitu.

- *Ratio honen balioa 0,75 baino gutxiago bada: ardura egoera adierazten du , epe laburrerako zorrei aurre egiteko arazoak izan ditzake.*
- *Ratio honen balioa 1 baino handiagoa bada: arreta egoera adierazten du. Enpresaren bihurtgarria eta erabilgarria handiegia da eta ondare-masa hauei errentagarritasun nahikoa ez ateratzearen arriskua dago. Hau da, bihurtgarria eta erabilgarria beste era batera erabiliko balitz, baliteke orain bihurtgarriari eta erabilgarriari lortzen diogun errentagarritasuna baino handiagoa lortzea. Kasu hauetan erabilgarria edo bihurtgarria gutxitzearen komenigarritasuna aztertzea aholkagarria da.*

5.2.5 Berehalako altxortegiaren ratioa (edo berehalako erabilgarriaren ratioa edo berehalako likideziaren ratioa)

Altxortegia edo erabilgarria aztertzen du, hau da, enpresaren berehalako ordainketaren gaitasuna.

Enpresaren erabilgarria osatzen duten ondare elementuetatik lortutako likideziak, berehalako epemuga duten enpresaren epe laburreko zorrak ordaintzeko duen gaitasuna neurtzen du. Honela kalkulatzen da:

$$\frac{\text{Erabilgarria}}{\text{Pasibo korrontea}}$$

Ratio honek aurrekoa osatzen du. Enpresaren erabilgarriarekin **bakarrik** (dirua dena) enpresaren epe laburreko zorren **zati bat** (berehalako epemuga dutenak) ordaintzeko gaitasuna neurtzen du.

Ratio honen balioaren interpretazioa:

- *Ratioaren balioa 0,1 eta 0,3 artean badago: egoera zuzena adierazten du, enpresak bere erabilgarriarekin berehalako zorrei aurre egiteko gai delako. Enpresak bai kutxan bai bankuko kontu korronteetan duen dirua pasibo korrontearen %10 eta %30en artean egon behar da.*
- *Ratioaren balioa 0,1 baino gutxiago bada: ardura egoera adierazten du, berehalako zorrei aurre egiteko arazoak izan ditzake.*
- *Ratioaren balioa 0,3 baino handiagoa bada: arreta egoera adierazten du eta ondare-masa hauei errentagarritasun nahikoa ez ateratzearen arriskua dago. Hau da, erabilgarria beste era batera erabiliko balitz, baliteke orain erabilgarriari lortzen diogun errentagarritasuna baino handiagoa lortzea. Kasu hauetan, erabilgarria gutxitzearen komenigarritasuna aztertzea aholkagarria da*

5.2.6 Bermearen ratioa (Porroterako distantziaren ratioa)

Enpresak hirugarrenei eskaintzen dien segurtasuna edo bermea adierazten du, hau da, zor guztiak ordaintzeko gaitasuna. Honela kalkulatzen da

$$\frac{\text{Guztizko aktiboa}}{\text{Pasibo galdagarria}} \quad \text{edo} \quad \frac{\text{Guztizko aktiboa}}{\text{e/lab.Galdagarria} + \text{e/luz.Galdagarria}}$$

Ratio honen balio gero handiago izan, hirugarrenek gero eta berme handiago izanen dute haien zorrak kobratzeko. Adibidez, ratio honek **2** balioa hartzen badu, horrek esan nahi du enpresak hartzekodunei zor dien moneta unitate **bakoitzeko 2** unitateko zenbatekoa duten ondasunak eta eskubideak dituela aurre egiteko.

Guztizko Aktiboaren balioan Aktibo Korrontean urteetan pilatutako Ibilgetuaren Amortizazio Metatua kenduta dago eta kendua dago urteetan zehar Aktibo Finko edo Ibilgetu elementuen Amortizazio Metatuaren balioa. Pasibo galdagarria (zor guztien batura), ordea, epe laburrerako galdagarria (Pasibo Korrontea) eta epe luzerako galdagarriaren (Pasibo ez Korrontea) arteko batura da.

Ratio honen interpretazioa:

- *Ratioaren balioa 1,5 eta 2,5 artean badago:* egoera zuzena adierazten du, enpresak bere hartzekodunei bermatzen baitizkie beraien aldeko zor guztiak (epe laburrera nahiz luzera).
- *Ratioaren balioa 1 eta 1,5 artean badago:* ardura egoera adierazten du, enpresa porrot egoeran sar daitekeelako. Beraz, bere hartzekodunen menpe dago.
- *Ratio honen balioa 2,5 baino handiagoa bada:* arreta egoera adierazten du, enpresak hartzekodun guztiei berme gehiegi eskaintzen dielako. Egoera honetatik ateratzeko aktiboa handitu dezake, baina kanpo finantziazioa soilik erabiliz. Ratio hau zenbat eta handiagoa izan, enpresak zorpetzeko, orduan eta ahalmen gehiago izanen du.
- *Ratio honen balioa 1 baino gutxiago bada:* egoera guztiz arriskutsua adierazten du, enpresa porrot teknikoan dagoelako. Kasu honetan pasiboa aktiboa baino handiagoa da eta egoera honetan ezin da luzaro egon; egoera hau hobetzeko neurriak hartu beharko lirateke. Arazo hauek ez badira konpontzen, enpresaren itxierara abiatuko litzateke.

Adibidea: enpresa bat porrot egoeran:

EGOERA-BALANTZEA 2000-12-31ean	
AKTIBOA	PASIBOA
AKTIBO EZ KORRONTEA.....1.232.000	ONDARE GARBIA.....900.000
Ibilgetu ukiezina.....150.000	Fondo propioak (ez galdagarria).....(300.000)
Jabetza industrial.....150.000	Kapitala.....2.000.000
Ibilgetu materiala.....1.082.000	Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak (1)....(2.300.000)
Lurrak eta ondasun naturalak.....240.000	PASIBO EZ KORRONTEA.....1.200.000
Eraikuntzak.....950.000	Epe luzerako galdagarria.....1.200.000
Altzariak.....182.000	Kreditu-erakundeekiko epe luzerako zorrak.....1.000.000
Ibilgetu materialaren amortizazio metatua.(290.000)	Epe luzerako zorrak.....200.000
AKTIBO KORRONTEA.....1.293.000	PASIBO KORRONTEA.....1.625.000
Izakinak.....905.000	Epe laburrerako galdagarria.....1.625.000
Salgaiak.....1.055.000	Kreditu-erakundeekiko Epe laburrerako zorrak.....700.000
Bihurgarria.....162.400	Osasun publikoa, kontzeptu Fiskalengatik hartzekoduna 400.000
Bezeroak.....162.400	Gizarte-segurantzako organismoak hartzekodunak.....50.000
Erabilgarria.....255.600	Hornitzaileak.....275.000
Kutxa, euroak.....30.000	
Banku k/k, euroak.....195.600	
GUZTIZKO AKTIBOA.....2.525.000	GUZTIZKO PASIBOA.....2.525.000

(1) Kontu honek aurreko ekitalditik azkeneraino sortu diren galerak jasotzen ditu.

Ikus daiteke Pasibo Galdagarria (1.200.000+1.625.000=2.825.000) Guztizko Aktiboa (2.525.000) baino 300.000 handiagoa dela. Beraz, Aktiboarekin ezin ditu zor guztiak ordaindu

5.2.7 Zorpetze ratioa

Orain arte ikusi ditugun ratioak, **epe labur eta luzean** gerta daitezkeen desorekak kontrolatzeko erabiltzen dira. Baina, ratio hauek kalkulatzear gain, enpresari komeni zaio jakitea **epe luzerako** finantziazioaren konposizio egokiena den ala ez. Hau da, bere egitura finantzarioan, **besteren finantziazioen (pasibo galdagarria) eta finantziazio propioen (fondo propioen) arteko erlazioa** egokia den edo, ostera, hobe daitekeen.

Ratio honek, fondo propioak eta besteren finantziazioen arteko proportzio egokia den ala ez, aztertzen du. Biak beharrezkoak dira enpresak bere jardura ekonomikoa aurrera eramateko. Honela kalkulatzen da:

Pasibo galdagarria edo Besteren finantziazioa	e/lab.Galdagarri+e/luz.Galdagarri
Fondo propioak edo Finantziazio propioa	Fondo propioak

Kasu gehienetan, enpresek, beraien aktiboak erosi ahal izateko besteren finantziaziora (pasibo galdagarria) jotzen dute. Batzuetan kanpo finantziazioa ere esaten zaio. Enpresek besteren finantziaziora jotzen dute, nagusiki, bi arrazoiengatik:

a.- Finantziazio propioa (norberaren finantziazioa edo fondo propioak) jardura ekonomikoa aurrera eramateko eskas gelditzen denean.

b.- Besteren finantziazioaren kostuak enpresak lortzen duen errentagarritasun ekonomikoa⁵ baino baxuagoak direnean. Kasu honetan onuragarria da inbertsioa egitea kanpo finantziazioarekin. Errentagarritasun ekonomikoa etekinak sortarazteko enpresak duen gaitasuna neurtzen du, modu erlatiboan adierazita. Lortutako irabazia eta Aktiboan gauzatua dagoen inbertsioaren arteko konparaketa da.

Ratio honek adierazten duena zera da: fondo propioen **moneta unitate bakoitzeko**, enpresak erabiltzen duen besteren baliabideen kantitatea eta hirugarrenen zein hartzekodunen arrisku finantzarioa neurtzeko ere erabiltzen da. Enpresaren zorpetzeak interesen ordainketa eta zorraren itzulketa suposatzen du. Bi ordainketa hauek arrisku finantzarioa osatzen dute

Ratio hau gero eta txikiagoa bada, orduan eta txikiagoa izango baita hartzekodunaren arrisku finantzarioa. Hauek, enpresari mailegatutako zenbatekoak berreskuratzeko aukera gehiago izango dituzte, fondo propio gehiago izango baititu itzulketa hori ziurtatzeko. Alderantziz, ratio hau zenbat eta handiago izan, hartzekodunaren arrisku finantzarioa orduan eta handiagoa izanen da.

Ratio honen balioen interpretazioa:

- Ratioaren balioa 0,5 eta 1 artean badago: egoera zuzena adierazten du, enpresak zorpetze-maila egokia duelako eta ondorioz, egonkortasun egoeran dagoelako
- Ratioaren balioa 1 baino handiagoa bada: ardura egoera adierazten du, enpresa gehiegi zorpetuta dagoelako, Fondo Propioak falta zaizkio eta, berriz, zor gehiegi ditu, hau da, finantza-egitura arriskutsuagorekin funtzionatzen ari da.
- Ratioaren balio 0,5 baino gutxiago bada: arreta egoera adierazten du, enpresak zorpetze maila handitzeko ongi aprobetxatzen ez dituen Fondo Propio gehiegi dituen egoeran egon daiteke.

5.3 ANALISI EKONOMIKOA

5.3.1 Kontzeptua

Finantza azterketa egitean, enpresaren finantza beharrianak aztertzen ditugu eta hartutako betebeharrei aurre egiteko enpresak altxortegia sortzeko duen gaitasuna.

Ekonomia azterketa egitean, errentagarritasunean oinarrituko gara, hau da, enpresak mozkinak sortarazteko gaitasunean, balio erlatiboetan adierazita.

Edozein enpresatan, zuzendari eta jabeek ondorengoaren arteko finantza oreka bilatu behar dute:

- Finantza egoera orekatsua, enpresaren jarduera bermatzen duena.
- Ahalik eta errentagarritasun maila handienak lortzea, hau da, egindako inbertsioei ahalik eta errendimendu handiena ateratzea.

Beraz, errentagarritasuna maximizatzean datza, enpresaren jarduera urtetan jarrai dezan eta ez ordea, urte gutxitan errentagarritasuna maximizatzean enpresaren biziraupena arriskuan jarritz.

Atal honetan, enpresaren galdu-irabazien kontua, mozkin mota ezberdinak eta errentagarritasun mota ezberdinak ikasiko ditugu. Horretarako, Egoera Balantzea eta galdu-irabazien kontua erabiliko da.

Azterketa ekonomikoak ematen duen informazioa funtsezkoa da enpresaren jabe nahiz akziodunentzako, kudeatzaileentzat eta hartzekodunentzako errentagarritasuna euren bermerik onena baita.

5.3.2 galdu irabazien kontua: mozkinaren kalkulua

Emaitzen kontua kontabilitateko agiria da eta, argi idatzita egonez gero, enpresak aldi jakin batean (normalean urte bat) lorturiko emaitzak (irabaziak edo galerak) adierazten ditu, baita irabazi edo galera horien iturriak ere.

Zehatzago esanda, denboraldi batean bere jarduerengatik lortutako sarrera guztiak modu laburrean eskaintzen ditu, hala nola, denboraldi horretan izandako sarrera eta gastuak. Horien arteko kendura irabaziak edo galerak izanen dira.

Emaitzen kontua bi forma edo egitura desberdinak erabiliz egin daiteke:

Lehenengoak *kontuaren* egitura erabiliz adierazten du (*horizontal eredua*), gastu guztiak ezker aldean idatziz eta sarrera guztiak eskuin aldean.

Bigarrenak *egoera* egitura erabiliz adierazten du (*bertikal eredua*), ekitaldiko sarrerekin hasiz, gastu guztiak izan ahala baditugu eta horrela, bukaerako irabazia edo galera lortuz. *Guk hau erabiliko dugu.*

Eredu honen egitura, bakarrik jarduera nagusia kontuan hartuz, honela da:

Ustiapen Sarrerak

- (-) **Ustiapen Gastuak**
- (=) **Ustiapen Eraitza edo Interesen nahiz Zergen Aurreko Irabazia (IZAI)**
- (-) **Finantza Gastuak:** zorraren batz besteko interes tipoa $\times$ (epe labur + epe motzeko galdagarria)
- (=) **Zergen Aurreko Irabazia (ZAI)**
- (-) **Mozkinen gaineko zergak:** Sozietateen gaineko zerga $\times$ (ZAI)
- (=) **Irabazi Garbia (IG) edo Zergen Ondorengo Irabazia (ZOI)**

Ustiapenaren eraitza kalkulatzeko jarduera nagusitik eta beste zenbait jarduera osagarrietatik sortzen diren sarrera eta gastuak kontuan hartuko dira.

Ustiapen sarreraren adibideak

- > Salgai edo produktu bukatuen salmentatik sortutako sarrerak
- > Errentamenduengatik sarrerak
- > Komisioengatik sarrerak
- > Hainbat zerbitzuengatik sarrerak (garraioak, konponketak, aholkularitza, txostenak, etab.)

Ustiapen gastuen adibideak

- > Salgai edo lehengaien erosketak
- > Errentamenduengatik gastuak
- > Aseguru-primengatik gastuak
- > Publizitate eta propagandengatik gastuak
- > Hornizkoengatik gastuak (elekttrizitatea, ura, telefonoa, etab.)
- > Pertsonal gastuak (soldata eta alokairuak, enpresen karguko Gizarte-Segurantzak, etab.)
- > Amortizazioetarako zuzkidurak.

Gastu finantzarioak ere, enpresaren jarduera nagusitik sortzen dira, baina soilik finantza-eragiketekin erlazionatuta daudenak; adibidez, enpresak ordaindu behar dituen interesak eskatutako maileguengatik, edo enpresak ordaindu behar dituen interesak truke-letren deskontu eragiketengatik.

Sozietateen Gaineko Zerga, enpresak Ogasun Publikoari ekitaldi ekonomikoa (oro har, egutegiko urtea) lortutako eraitzengatik, ordaindu behar dion zerga da.

Irabazi Garbia (IG) edo ZOI "Ekitaldiaren eraitza" kontuaren bidez adierazten da. Hau Egoera Balantzaren Norberaren baliabideetan (fondo propioetan) kokatua dago.

1.go adibidea: YYY, SA enpresaren ZOI kalkulua

Enpresa bateko finantza zuzendariak ondorengo informazioa ematen digu:

Ustiapeneko sarrerak: 200.000	Ustiapeneko gastuak: 187.174
Pasibo galdagarria: 74.650	Fondo propioak: 65.840
Zorren batezbesteko interes-tasa: %4	Irabazien gaineko zerga: %35

Irabazi Garbia edo ZOI kalkulatu

2.go adibidea: YYY, SA enpresaren ZOI kalkulua. Ezezaguna pasibo galarrian egonda

AKTIBOA		PASIBOA	
		A) ONDASUN GARBIA	
		Norberaren Baliabideak edo ez galdagarria	
		Kapital Soziala	80.000€
		Legezko erreserba	24.230€
		Ekitaldiaren emaitza	¿?
		B) PASIBO EZ KORRONTEA	30.000€
		Epe luzerako galdagarria	30.000€
		C) PASIBO KORRONTEA	
		Gainerako epe laburreko galdarria	10.000€
		Hornitzaileak	¿?
GUZTIZKO AKTIBOA	150.000€	GUZTIZKO PASIBOA: Hornitzaileak gabe (A)	144.230€

Ustiapeneko sarrerak: 80.000

Ustiapeneko gastuak: 70.000

Zorren batezbesteko interes-tasa: %10

Irabazien gaineko zerga: %35

Irabazi Garbia edo ZOI kalkulatu

5.3.3 Errentagarritasun kontzeptua

Errentagarritasunak mozkinen zenbateko absolutuaren eta enpresak egindako inbertsioaren arteko erlazioa adierazten du.

Beraz, errentagarritasuna kalkulatzeko, bi elementuk hartzen dute parte beti: irabazien neurria eta inbertsioaren neurria.

Errentagarritasunak ez du mozkina balio absolutuetan adierazten (ez mozkinen zenbateko absolutua), bai ordea, inbertitutako moneta unitate bakoitzeko mozkina. Gehienetan portzentajeetan adierazita dator.

Honela kalkulatzen da:

$$\text{Errentagarritasuna} = (\text{Irabaziak} / \text{Inbertsioa}) * 100$$

Enpresaren helburua ez da irabaziak maximizatzea, bai ordea, errentagarritasuna maximizatzea.

A enpresak, 50 milioiko aktiboarekin, 7.5 milioiko mozkina lortu du. Kalkula ezazu errentagarritasuna.

$$\text{Errentagarritasuna} = \frac{\text{Irabaziak}}{\text{Inbertsioa}} \times 100 = \frac{7.5}{50} \times 100 = \%15$$

B enpresak, 20 milioiko aktiboarekin, 4 milioiko mozkina lortu du. Kalkula ezazu errentagarritasuna.

$$\text{Errentagarritasuna} = \frac{\text{Irabaziak}}{\text{Inbertsioa}} \times 100 = \frac{4}{20} \times 100 = \%20$$

Errentagarritasunaren kontzeptu generiko hau beste motatako errentagarritasunetan zehatz daiteke (akziodunaren errentagarritasuna, errentagarritasun ekonomikoa eta finantza errentagarritasuna)

5.3.4 Akziodunaren errentagarritasuna

Akziodunaren errentagarritasunak akziodunek lortutako irabazia (dibidenduak) eta horiek enpresari emandako kapitalarekin erlazionatzen ditu.

5.3.5 Errentagarritasun ekonomikoa

Enpresaren errentagarritasun ekonomikoa, egindako guztizko inbertsioen edo berak erabilitako guztizko baliabideez gain, interesen nahiz zergen aurreko irabaziak (IZAI) adierazten duen portzentajea da.

Interesen nahiz zergen aurreko mozkina kontuan hartzen da inbertsioak lortutako errentagarritasuna ezagutzeko, egitura finantzarioa kontuan hartu gabe, hau da, inbertsioak nola dauden finantzatuta aztertu gabe (auto-finantziazioa eta kanpo finantziazioaren proportzioak). Horrela, errentagarritasunak izaera ekonomikoa du, ez finantzarioa.

Errentagarritasun ekonomikoa ondoko adierazpenaren bidez kalkulatzen da:

Interesen nahiz zergen aurreko irabazia (IZAI)	
-----	x 100
Guztizko aktiboa	
Edo	
Interesen nahiz zergen aurreko irabazia (IZAI)	
-----	x 100
Guztizko pasiboa	

Errentagarritasunaren jatorria jakiteko, errentagarritasun ekonomikoa nola lortzen den hobe azaltzen duten bi osagai edo sustatzaile nagusien biderkaduran deskonposatuko dugu. Horiek salmenten gaineko marjina eta salmenten bitarteko aktiboaren errotazioak dira.

Lehenengo adierazpenaren zenbakitzailea eta izendatzailea salmenten zifrarekin biderkatuta, haxe izango dugu:

$$\text{Errentagarritasun ekonomikoa} = \frac{\text{IZAI}}{\text{Salmentak}} \times 100 \times \frac{\text{Salmentak}}{\text{Guztizko aktiboa}}$$

Adierazpenaren berri horren lehenengo osagaia salmenten gaineko marjina da. Bigarren osagaiak aktiboren errotazioa adierazten du.

- Salmenten gaineko marjina edo tarte (IZAI / Salmentak)

Portzentaje honek saldutako 100 moneta unitateko lortzen dugun irabazia (portzentajea) adierazten digu, hots, irabaziak salmenten portzentajetzat duen neurria eskaintzen digu. Adibidez, %20 balioak esan nahi du salmenten ondorioz saldutako ehun moneta unitatetik hogeit hamar interesen eta zergen aurreko irabaziak direla.

$\text{Salmenten gaineko tartea} = \frac{\text{IZAI}}{\text{Salmentak}} \times 100$

Salmenten gaineko marjina ezarritako salmenta prezioaren eta ustiapen gastuen arabera da batez ere, eta elementu horiek guztiak enpresak kontrolatzen ditu, aldatzeko ahalmena duelako.

Adibidez, enpresa batek produktu bakarraren ehun unitate saltzen baditu, 20 € unitateko prezioan eta unitate bakoitzeko 5 €ko irabaziak lortzen ditu interes eta zergen aurretik, ustiapeneko kostu bateratuak 15 €koak baitira. Kasu honetan, salmenten gaineko marjina %25 izango da:

$$\frac{20-15}{20} \times 100 = \%25$$

Enpresa horrek, kostuak murrizteko programa baten bidez, 15etik 10 €ra murrizten badu ustiapeneko kostu bateratua, marjina berria %50 izango da :

$$\frac{20-10}{20} \times 100 = \%50$$

Efektu berbera lor daiteke, kostuak aldatu beharrean, enpresak salmenta prezioa 20tik 30 €ra igotzea lortzen badu.

•Aktiboen errotazioa (Salmentak / Guztizko aktiboa)

Kontzeptu honek enpresaren aktiboa, urtean zenbat aldiz berritzen den adierazten du. Hau da, saldutako moneta unitate kopurua, aktiboan inbertitutako moneta bakoitzeko.

Etekinak sortarazteko enpresak duen gaitasuna aukeratzen du, bere aktiboan egindako inbertsioak erabiliz. Orokorki, ratio hau zenbat eta handiago izan gure enpresa orduan eta eraginkorragoa izango da, aktiboko zenbateko jakin batekin salmenta gehiago lortzen dituelako, hau da, bere inbertsioetatik errendimendu handiagoa lortzen ari da. Adibidez, errotazioak hiruko balioa hartzen badu, horrek esan nahi du salmentak aktiboen balioa baino hiru bider handiagoak direla, hau da, salmenta horiek lortzeko, urtean, aktiboa hiru aldiz berritu dela. Errotazio hori bi faktoreen menpe dago batik bat:

> Enpresak bere aktiboa nolako eraginkortasunez erabiltzen duen: enpresa bat beste bat baino eraginkorragoa izango da inbertsio baterako salmenta bolumen handiagoa lortzen badu.

> Enpresa zein jarduera sektoretan dagoen: errotazioa, neurri handi batean, jarduera sektorearen arabera izaten da. Horrela, adibidez, itsasontziak egiten dituen enpresa batek inbertsio handiagoa beharko du janari azkarreko jatetxe batek baino.

Salmenten gaineko marjina eta aktiboen errotazioaren konbinazio desberdinak eginez errentagarritasun ekonomiko berdina atera daiteke.

Hona hemen adibide bat.

	SALMENTEN GAINEKO MARJINA	AKTIBOEN ERROTazioA	ERRENTAGARRITASUN EKONOMIKOA
"A" ENPRESA	%7	2.1 bider	%14.7
"B" ENPRESA	%24	0.6 bider	%14.4
"C" ENPRESA	%12	1.2 bider	%14.4

Aurreko hiru kasuetan, errentagarritasun ekonomikoa ia-ia berdina da (alde gutxi dago), lortzeko modua desberdina izan arren.

> "A" motako enpresa: halako enpresatan errentagarritasuna salmenta bolumen handiaren bidez lortzen da, horrek aktiboen errotazio handia lortzeko aukera ematen baitu; hala ere, salmenten gaineko tarteak ez dira oso handiak. Adibidez: Hipermerkatuak.

> "B" motako enpresa: halakoetan alderantzizkoa gertatzen da, hau da, salmenten gaineko tarte oso handiak daude (%24) eta aktiboen errotazio txikia (0.6 bider). Halako enpresek inbertsio handiak behar izaten dituzten aktibo finkoetan, telekomunikazioen sektoreak adibidez.

> "C" motako enpresa: tamaina ertaineko manufaktura-enpresa askok halako eskema izaten dute.

Laburtzeko, errentagarritasun ekonomikoa bi faktoreen menpe dago: salmenten gaineko marjina eta aktiboen errotazioa. Enpresak bi kontzeptu horietan jardun beharko du, errentagarritasun ekonomiko handiagoa lortzeko: dena den, ikusitakoaren arabera, enpresaren jarduera sektoreak eragin handia dauka.

Adibide esanguratsua: prentsa kiosko batek aktiboen errotazioari esker lortzen du errentagarritasun ekonomikoa. Horren azalpena hauxe da: prentsak lehendik ezarrita dauka jendeari saltzeko prezioa (salmenta prezioa aldeaz aurretik ezarrita dago), eta kioskoaren jabeak ordaintzen duen prezioa ere finkoa da; horrela, gutxi jardun ahal izango da salmenten gaineko tarteetan, eta tarte hori txikia izaten da beti. Zer egin dezake, orduan, errentagarritasun ekonomiko handiagoa lortzeko? Bada, errotazioarekin jokatu inbertsio bolumen baterako salmentak maximizatzeko ahalegina eginez.

Hori dela eta, kokalekua, produktuen bariedadea eta bezeroari eskainitako zerbitzua bezalako faktoreak oso garrantzitsuak dira, eragin handia izan baitezakete salmentetan eta, horrenbestez, errentagarritasunean.

2. adibidea

1.go adibidearen datuak kontuan hartuz, kalkula itzazu errentagarritasun ekonomikoa eta bere osagaiak: salmenten gaineko tarte eta aktiboen errotazioa.

3. adibidea

2.adibidea jarraituz, demagun:

Enpresak ustiapeneko gastuak %20an murrizten dituela.

Enpresak ustiapeneko sarrerak %16an handitzen dituela, bere produktuen salmenta prezioa igoz.

Kalkula itzazu errentagarritasun ekonomikoa eta bere osagaiak aurrean aipatu diren bi kasu horiek bereiziz eta konparatu 2.adibidean lortutakoekin.

5.3.6 Finantza errentagarritasuna

Finantza errentagarritasunak edo norbere baliabideen errentagarritasunak, irabaziak enpresaren fondo propioekin erlazionatzen ditu.

Finantza errentagarritasunak enpresaren norberaren baliabideetan ZOIk suposatzen duen portzentajea adierazten du

Honela kalkulatzen da errentagarritasun finantzarioa:

$$\frac{\text{ZOI}}{\text{Fondo propioak}} \times 100$$

Kontzeptu honek zera neurtzen du: enpresaren ahalmena bere jabeei ordaintzeko, bai dibidenduen ordainketen bidez bai irabazien atxikipenen bidez, azkeneko honek enpresaren ondarearen balioa handitzen baitu.

Interesak kanpo-finantzaketari eta mozkinen gaineko zerga ogasunari ordaintzeko erabiltzen direlako ez dira kontutan hartzen norberaren baliabideen errentagarritasuna kalkulatzeko orduan. Erabiliko den emaitza, beraz, ZOI izanen da.

Adibidea

Enpresa bateko finantza zuzendariak ondorengo informazioa ematen digu:

Ustiapeneko sarrerak: 42.000.000

Ustiapeneko gastuak: 36.800.000

Pasibo galdagarria: 12.000.000

Fondo propioak: 16.000.000

Zorren batez besteko interes-tasa: %10

Mozkinen gaineko zerga: %35

Kalkulatu errentagarritasun finantzarioa

